

## KANALAK

Kanalak, enpresak komunikatzeko eta segmentu-merkatuei bere balorezko proposamena helarazteko moduarekin lotuta daude.

Gure bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, web orrialde bat sortu dugu, eta bertan telefono zenbakia eta e-mail helbide bat ere jarri dugu. Beraz, bezeroek internet edo telefono bidez gurekin komunikatzeko aukera izango dute. Arazoren bat balego, telefonoz edo e-mail bidez irtenbide bat aurkituko genioke.

Zerbitzuen banaketa gure kasuan zerbait desberdina da; bezeroak guregana etorri beharrean, gu joan beharko ginatekeelako beraiengana gure zerbitzua eskaintzera. Horretarako kontuan hartuko dugu herri bakoitzean dagoen bezero kopurua.

Zerbitzuen salmenta guk sortutako triptikoen bidez egingo dugu, hauek publizitatea sortuko dutelako. Triptikoak joaten garen herrien turismo bulegoetan, kirol federazioetako elkarteetan, gazte elkarteetan, jai antolatzaileen sailetan eta udaleku kulturako ataletan egongo lirateke; bezeroek bertan aurkituko dituzte aurretik aipatutako harremanetan jartzeko bideak.